

ENPRESA IDEIA

Gure proiektuak gazteentzako aisialdirako leku itxi bat eskaintzean datza. Leku hau eremu desberdinetan banatuta egongo da, bakoitzaren interesen arabera eremu batera ala bestera joan ahal izateko edota alde batetik bestera mugitzen joateko, eta ekintza ugariak burutzeko. Gune bakoitza ekintza batean girotuta egongo da eta gai horri buruz ekintzak eskainiko dira. Gune ezberdinak elkarren artean gertu egongo dira, bertako lekua ongi aprobetxatzeko eta erabiltzeko. Adibidez, eremu bat kirolaren ingurukoa izango da eta kirol desberdinak egiteko aukera emango dugu, edota kirolarekin zerikusia duten hainbat joko. Horrez gain, taberna zerbitzua eta terraza jarriko ditugu, eta aire zabalean egoteko toki bat, Gure zerbitzuaz gozatzeko egin behar den bakarra, sarrera bat ordaintzea izango da, eta askotan etorri nahi baduzu, deskontuak eskainiko ditugu, hilabetean sarrera mugagabea eskuratu ahal izateko. Horrez gain, urtean zehar hainbat ekintza handi antolatuko ditugu: irteerak, joko kolektiboak, festak.... Gainera, proiektu jasangarri bat da, hau da, ez dugu baliabide askorik erabiliko eta antolamendu eraginkorra dela eta, hasierako inbertsioaz gain, ez dugu diru gehiegirik behar. Beraz, gure proiektua, inklusiboa dela esan daiteke, gazte guztion nahiak asetu eta interes orokorrak gauzatzen baititu.